

## CHRISTUS VIVIT

“Christus vivit”. Kristo bizi da! Hauxe da Frantzisko Aita Santuak aurten argitaratu dauan dokumentu ederrena. Erroman gazteei buruz ospatutako Sinodoaren emoitza dogu berau. Egungo estilo bizia, erraza eta samurra darabil Aita Santuak.

Bederatzi kapitulu ditu. Bigarreanean, Jesukristo “beti gazte” eta Maria “Nazareteko neskatilla” aurkezten saiatzen da Aita Santua. Eta ondoren, hamabi Santu gazte jartzen ditu eredu. Euron artean Teresa Lisieuxkoa. Berau da zerrenda honetako Eliz Irakasle bakarra. “Doctor Amoris” dogu, Joan Paulo II.aren esanetan. Nahizta aldi haretan jansenismoz lar kutsaturiko bitizta arnastu, eskerrak, familian xurgatutako maitasun giroak markatuko dau Teresitaren “erraldoi baten laisterketa” (A Esk. 44i). “Jainko onak atsegin izan dau neure bitizta osoan ni maitasunez inguratzea. Nire lehen oroitzapenak irribarre eta txera aztarna gordetzen dute... Baina Hark nire inguruan maitasun ugari jarri bazuen, nire bihoztxoan izaera amultsu eta sentibera jarri zuen. Nik ere maite-maite nituen aita eta ama, eta era askotara agerzen nien, oso irekia bainintzen” (A Esk. 4i).

Frantzisko Aita Santuak bere hitzaldi eta dokumentuetan sarritan aipatu izan dau Teresita. Ez da harritzekoa gazteei zuzendutako kartan euron jarraibide jartzea. Zelako poza hartuko eban Teresitak, Frantzisko Aita Santuaren karta eder hau bere garaian irakurtzeko aukera izan baleu. Batez ere laugarren kapitulu, Frantzisko Aita Santuaren berbak irakurrita, “itzi Jaungoikoari zuekin maitemintzen eta bizi beragaz maiteminduta”, hunkituta geratuko zan. Ze ederto dagoan pentsamentu honetan laburbilduta Teresitaren bizipen ederra. Hortxe nabaritzen

da bere bizitzaren eta mezuaren arnasa eta mamia. Jaungoikoa maitasuna da, maitatzen baino ez dakiana. Gehiegi maite gaituana. Gugaz maiteminduta dagoana. Horixe da Teresitaren bihotz garbia gehien harritzen dauan esperientzia sakonena. Eta hortik sortzen jako barne-barneko bizipoz gorena ere.

### **Jaungoikoak “zoratzerraino” maite gaitu**

Gizaldiak joan eta gizaldiak etorri, kristau apal eta umilen esperientzia barnekoena, Jesusen apostolu maitearen esperientzian murgilduta ageri dala dirudi: “Jainkoa maitasuna da. Honetantxe agertu da Jainkoaren guganako maitasuna: Jainkoa bere Seme bakarra mundura bialdu eban, beronen bidez bizia izan dagigun. Hauxe da benetako maitasuna: ez guk Jainkoari izan deusagun maitasuna, berak guri izan deuskuna baino. Jesus Jainkoaren Semea dala autortzen dauanarengan dago Jainkoa eta bera Jainkoarengan. Eta guk ezagutu dogu eta sinistu Jainkoak deuskun maitasuna. Jainkoa maitasuna da. Berak maitatu ginduzan lehenengo” (cf. 1 Jn 4, 8.19).

Joan Apostoluaren bizipena garbi nabaritzen da Teresitarengan. Gogoko ditu Ezekiel profetaren berbak. Egoki dagokioz bere barruko esperientzia adierazoteko: “Jainko onak Ezekielek bere profezietan dioena egin zuen niretzat: ‘Nire ondotik pasatuz, Jesusek niretzat maitatua izateko garaia iritsi dela ikusi du. Ezkon-hitzarmena egin zuen nirekin, eta ni harena egin nintzen... Nire gain zabaldu zuen bere Mantua, lurrin preziatuz garbitu nau, jantzi bordatuz apaindu, lepokoak eta apaingarri estimagaitzak emanez... Irinik garbienaz, eztiz eta olio ugariz elikatu nau... Orduan eder bihurtu naiz haren begietan eta hark erregina boteretsu egin nau!... Bai, Jesusek hau guztia egin du niretzat. Nik errepika nezake idatzi berri ditudan hitzetariko bakoitza eta nire alde egin dela egiaztatu ” (A Esk. 46i).

1895eko ekainaren 9a, urrezko letrak in agertu behar leuke kristau espiritualitate historian. Hirutasun Santuaren jaiaren

urte haretan. Egun horretan, Teresitak 22 urtekin, bere burua-  
ren eskaintza erreparizat egingo deutso Jainko Onaren Maitasun Errukitsuari. Ordura arte ez zan holakorik ezagutzen. Bai, oster, Jaungoiko justiziari oparigaitzat eskaintzea. Eraldatze kopernikarra dirudi kristau munduan...!

Bere autobiografian, otoitz gisa, honela gogoratzen dau zorioneko eskaintza hunkigarria: “Oi, ene Jainko!, oihu egin nuen neure bihotz barnetik, zure justiziak hartuko ote ditu soilik oparigaitzat eskainitako arimak?... Ez al du zure maitasun errukitsuak ere beraien beharrik?... Alde guztietan ezezaguna eta baztertua da. Zuk maitasun oparo eman nahi diezun arimak, sorkarrietara bihurtzen dira, bere joran ziztrinarekin zorion eske jardunez, zure besoetan murgildu eta zure maitasun mugagabea onartu beharrean ... Oi, ene Jainko! Zuretzat eskainitako arimak aurkituko bazenitu, uste dut, laster batean kiskaliko zenituzkeela. Uste dut zoriontsu zinatekeela, zugar dauden mugagabeko samurtasun errukitsuari arimak kiskaltzea, zure errukia zeruetaraino altxatzen bada? Oi, ene Jesus! Neu izan nadila oparigai dohatsu hori; kiskali zeure erreoparia zeure jainko-maitasunaren suaz!...” (A Esk. 84a).

Bere ahizta Zelinak 25 urte ditu. Aita hil ondoren, moja sar-tzeko erabakia hartzen dau. Berehala itzelezko ekaitza sortzen da senideen artean. Batez be bere lehengusu eta lehengusinekin. Batetik, bokazinerik ez daukala, hoba dala ezkontzea, bes-tetik esker txarrekoa dala, burutik jota dagola, eta abar.

Teresitak gauzak argitzeko, karta sakon bat idazten deutso ahizteari. Garbi gogoratzen deutso lekaiame bokazioaren go-rentasuna, Jaunak gure alde egindako “zorakeriak” aipatuz:

“Hau poza zoratzerraino maite gaitunarengatik sufritzea eta munduaren begietan erotzat hartuak izatea ... Baina azken ba-tez, gu ez gara lehenengoak! Herodesek Jesusi leporatu zion kri-men bakarra zoraturik egotearena izan zen ... eta nik ere hark bezala pentsatzen dut!... Bai, zoraturik zegoen; haren eromena,

errege-aulki bihurtu nahi zituen hilkorren bihotz gaixoak bilatzean zetzan. Jesus, Kerubinen gainean eserita dagoen aintzazko Erregea!... Jesus, beronen presentziari zeruek ezin eutsi diotena! Eroturik izan behar zuen gure Maiteak, lurrera bekatarien bila etorri eta bere lagun, bere kutun, bere pareko egiteko. Jesus, Hirutasuneko beste bi Pertsona Gurgarriekin hain zorionsua zena!... Guk ezingo dugu sekula hark gugatik egin zuen erokeriak egin, eta gure ekintzek ez dute holako merezimendurik ere, gure ekintzak arrazoizkoak baitira eta ez baitira gure maitasunak egin nahiko lituzkeenetara hurbiltzen”. (TG 169) “Oi, Jesus, utz iedazu esaten neure esker onaren gainezkaldian zure maitasuna zoratzeraino iristen dela! ...” (B Esk. 5i).

Zeintzuk dira Teresitarentzat Jaungoikoaren maitasunaren “zorotasun” nagusienak? Jaungoikoaren Seme Bakarraren gizon egitea, bere Nekaldia eta bere presentzia sakramentala Eukaristian. Hilebete hil aurretik, 24 urtekin, Teresitak estampa bat pintatu eban bere adiskide Belliere abadegaiari bialtzeko. Bertan agertzen dira Ume Jesusen irudia, Kurutzearen tresnak eta Ostia Sakratua abadearen eskuetan. Estanparen atzealdean, lapitzaz idatzitako lerro honeek: “Ezin naiz niretzat hain txikia egin dan Jainkoaren beldur izan ... nik maite dut! ... Jainkoa maitasuna eta errukia besterik ez da eta” (TG 266). Barneraino sartuta dauko intuizio harrigarri hau: ”Maitasunari dagokiona beheratzea izanik (...) horrela jaitsiz, Jainko onak bere handitasun azkengabea erakusten du” (A Esk. 2i. 3a).

### **Maitasunak maitasuna erakartzen dau**

Jaungoikoaren maitasunaren eta errukiaren aurrean, Teresitak hunkituta, liluratuta, “zorotuta” dirudi. Ume umetatik das-tatu dau Jaungoikoaren ontasun amaigabea. “Jainko ona ama bat baino samurragoa baita” (A Esk. 80a). 24 urte besterik ez dituala, bere bizitzako azkenengo urtean, honela laburbiltzen dau bere barneko esperientzia zoragarria:

“Zuk badakizu, oi ene Jainko, nik ez dudana sekula nahi izan zu maitatzea baizik; ez dut beste aintzarik irrikatzen. Zure maitasunak aurrea hartu dit haurtzarotik, nirekin batera hazi da, eta orain haren sakona neurtu ezin dudana hondalea da. Maitasunak maitasuna erakartzen du; horregatik, ene Jesus, nire maitasuna zureganantz amiltzen da; erakartzen duen hondalea, bete nahi luke, baina ai!, ez da itsasoan galdutako ihintz-tantatxo bera ere... Zuk maitatzen nauzun bezala maitatzeko, zeure maitasuna bera eskatu beharko nizuke maileguz. Orduantxe soilik gelditzen naiz lasai. Oi, ene Jesus! Beharbada, begitazioa izango da, baina uste dut, ezin duzula maitasunez gehiago bete arima bat nirea bete duzuna baino. Horregatik, niri eman dizkidazunak ni maitatu nauzun bezala maita ditzazula ikusiko banu, poztu egingo nintzateke, aitortuz arima hauek nireak baino askoz gehiago merezi dutela zure maitasuna. Baina hemen behean ezin dut buruan sartu maitasun-neurrigabetasun handiagorik zuk niri dohanik, nire aldetiko inolako meriturik gabe, ematea nahi izan duzuna baino” (C Esk. 35a).

Teresitaren erantzuna zirrargarria izango da. Historian zehar izan eta izango diran santu guztien egintzak irrikatzen ditu: “Neure gurari guztiak idatzi nahi banitu zeure bizitza-liburua utzi beharko zenidake; hantxe kontatzen dira santu guztien egintzak eta egintza horiek dira nik zuregatik egin nahi nituzkeenak ...” (B Esk. 3a) Gehiago oraindio: “Zuk maitatzen nauzun bezala maitatzeko, zeure maitasuna bera eskatu beharko nizuke maileguz” (C Esk. 35a).

Eskerrak San Paulori (ikus. 1 Ko 12, 31. 13, 1-13) aurkituko dau bere amets guztien irteera: “Oi, Jesus, ene maitea! Azkenez aurkitu dut neure bokazioa: Maitasuna da! ...” (B Esk. 3i) Eta Joan Gurutzekoren pentsamentu sakon honek: “Maitasuna maitasunaz bakarrik ordaintzen da” (Kantu izpirituala, 9. Ahap.) ziurtatuko deutso bere bokazioa Elizaren bihotzean.

Hain gogoko dau Karmengo Ordenako Maisuaren pentsamendua, bere armarriko ikurtzat hartuko dau (ikus. A Esk. 85i).

Zelako poza hartu eban Teresitak San Pauloren eta San Joan Gurutzekoren ziurtapenaz. Maitasunaz hegan sentitzen zan. Bere DNA maitasuna dirudi: “Beldurak atzera eragiten dit; maitasunarekin, ez aurrera egin bakarrik, hegan egiten dut” (A Esk. 80i).

Teresitak, Jaunarekin bizi dauan amodioa azaltzeko, aparteko parabolak eta irudiak erabiltzen ditu. Ze ederto adierazten dauan posible dala Jaunarekin maiteminduta bizitzea, bai zorionean eta bai nekeetan ere!

Merezi dau hareen izen batzuk aipatzea: “Lorategiko bioleta txikia” (A Esk. 2i-3a). “Lorak botaten dituan umetxoa” (B Esk. 4a). “Txoritxo gaixoa eta Maitasun-Eguzkia” (B Esk. 4i-5i). “Eze-rezaren gaba” (C Esk. 5i-7i). “Sua eta burdina” (C Esk. 35i-36a). “Errege boteretsua eta neskatxa apala” (TG 109). “Bitxilore txikia eta Jainko-Eguzkia” (TG 134). “Ihintz tantatxoa eta Itsasoa” (TG 141, 142) “Profesa egunerako gonbidapena” (A Esk., 77a).

## **Korolario gisa**

Jesukristoren Jaungoikoagaz maiteminduta bizitzea izango da Teresitaren bokazioa. Teresitak 17 urtekin egingo dau profesa. Garai haretan, egun bi desbardinetan izaten zan botoak egitea eta beloak hartzea. Botoak egitearen zeremonia komentuko sala kapitularrean ospatzen zan eta komentuko mojak bakarrik hartzen eben bertan parte. Beloak hartzea, ostera, eleizan jendearen aurrean handikiro ospatzen zan. Hotsandiko zeremonia horretan, normalean Elizbarrutiko gotzaina buru zala. Teresitaren belo hartzean, gotzaina gaixorik egoanez, ezin izan eban buru egin. 1890ko irailaren 8an egingo ditu Teresitak botoak eta belo hartzea irailaren 24an.

Botoak egiteko egunerako otoiz eder bat osatuko dau. Eta beloa hartzeko egindako gonbidapenak, ezkontza gonbidapena dirudi. Idazki biotan maiteminduen hizkera darabil. Orduko klausurako moja bati ez jakon holakorik inoiz burutik pasatu ere egingo. Egundoko burutazioa!

### **1. Profesako otoitza**

“Oi, Jesus, nire jainkozko senarra!, inoiz ere ez dezadala neure bataioko bigarren jantzia galdu. Eraman nazazu neuk nahi dudala hutsik txikiena ere baino lehenago. Ez dezadala inoiz ez bilatu ez aurkitu zeu baino besterik; izakiak ez daitezela niretzat ezer izan eta ni ez nadila haientzat ezer izan, zeu, Jesus, izan zaitezela dena! ... Lurreko gauzak ez daitezela inoiz nire arima artegatzeko gai izan, ezerk ez dezala nire bakea nahasi; Jesus ez dizut bakea baizik eskatzen, eta maitasuna ere bai, zeu baino beste mugarik ez duen maitasun azkengabea, ni barik zeu, nire Jesus, zaren maitasuna. Jesus, zugatik martiri hil nadila, bihotzeko zein gorputzeko martiritzarekin, edota hobeki biekin... Emaidazu botoak oso-osorik betetzea eta ulertaraz iezadazu zelakoa izan behar duen zure emazte batek. Egizu ez nadila inoiz komunitatearentzat zama izan, eta inor ez dadila nitzaz arduratu, oinekin zapaldua bezala izan nadila, ahaztua zure hondar-aletxo bat bezala, Jesus.

Zure nahia egin dadila nigan oso-osorik, hel nadila niretzat gertatzen lehenago zu izan zaren lekura... Jesus, egizu arima asko salba ditzadala, gaur bat bera ere ez dadila gal eta garbitokiko arima guztiak salba daitezela... Jesus barka iezadazu esan behar ez diren gauzak esaten badituz, zu poztu eta kontsolatzea baizik ez dut nahi” (2. Otoitza).

### **2. Beloa hartzeko gonbidapena**

“Jainko Aita Ahalguztidunak, zeru-lurren Egile eta Munderuko Jaun eta Jabe denak, eta Maria Birjina dohatsuak, Zerue-

tako Erreginak, aintzat dute zuri jakinanaztea beren Seme Ohoragarria Jesus, Erregeen Erregea eta jaunen Jauna denaren Ezkontza Teresa Martin Andereñoarekin, orain bere Jainko-Senarrak ezkonsariz emandako erreinueta Andre eta Printsesa denarekin; erreinu hauek Jesusen Hautzaroa eta haren Nekaldia, eta dituen handiki-tituluak, Jesus Haurarena eta Aurpegi Santuarena izanik.

Luis Martin Jaunak, Sufrimendu eta Apalduraren Jaurrerietako Jabe eta Jaun denak, eta Martin Andreak, Zeruetako Gorteko Ohorezko Damak, aintzat dute zuri jakinaraztea beren Alaba Teresaren Ezkontza Jesusekin, Jainkoaren Hitza, Hirutasun Gurgarriaren bigarren Pertsona, Espiritu Santuaren egitez Gizon eta Maria Zeruetako Erreginaren Seme egin zenarekin.

Karmel mendian, 1890ko irailaren 8an eman zitzaizen ezkonbedeinkaziora ezin gonbidatu izan zaitugunez gero (zeruko gortea izan da soilik onartua), ezteiondora, halere, etor zaitezela eskatzen zaizu, bihar izango da eta, betikotasuneko egunean, Jesus, Jainkoaren Semea bere Handitasunaren distiran Zeruko Hodeien gainean Biziak eta Hilak epaitzera etor dadinean.

Ordua oraindik ezezaguna denez gero, gertu eta erne egoteko eskatzen zaizue” (A Esk. 77i).

### **3. Azken berbak**

Teresitaren azken berbak MAITASUNARI eskenitako oda xarmagarria dirudie:

“Ez dot neure burua MATASUNARI emon izatearen damurik. Oi! Ez, ez naz damutzen, alderantziz baino... Ene JAUNGOIKO ONA ... maite zaitut” (KH 30,9.11).

*A. Olea*